

8-12 URTEKOEN TALDEA

Donostia Ezagutu eta **Explorers** neska-mutikoei Donostia eta Gipuzkoa ezagutzen laguntzeko programak dira, eta hori jakin-minezko begiradaz, lagunartean eta era dibertigarrian egingo da, oporretan kulturaz goza dezaten.

8-12 urtekoen talderako programa hauek hirian gauzatuko dira, musika- eta arte-jarduerekin eta jolas kooperatibo eta inklusiboekin egingo dira. Kutxa Kultur eta Tabakalera Eraikina ikusiko dugu eta txangoan ibiliko gara hirian eta inguruetan gure kulturaren misterioak ezagutzeko. Programaren edukia kontzeptu-eskema honen barruan kokatuko da, eguneroko eta taldera egokitutako jarduerekin landuko delarik:

GOAZEN TXANGOAN

Zure herria bere mendietan, auzunetan eta interes bereziko lekuetan gorderik dituen sekretuak aurkituko ditugu lagunartean. Ongi pasatzea ziurtaturik dago taldean egingo ditugun paseo tematikoetan. Pirata-adabakia jarri eta beste mundu eta garai batera joango gara, zure herriko txororik bitxien eta magikoenetan zehar paseatuz.

SENTITU ETA GOZATZEA

Lasaitu hasi baino lehen! Geure gorputza sentituko dugu, bost zentzumenak landuko ditugu, zientzia aztertuko dugu Eureka! Zientzia Museoaren eskutik eta modari keinu bat egingo diogu geure esku- eta sormen-trebetasunak gauzatuz.

Ixoooooo, hasi da musika! Mugimenduak sentituko ditugu, zentzumenak iratzarriko ditugu, aktibatu eta koordinazioa landuko dugu. Musika KUTXA KULTUR-entzat entzute hutsa baino gehiago da; sentitzea da, gozatzea, partekatzea, ulertzea, ...

NATURAN BETE-BETEAN

Gogoia landuko dugu hobeto sentitzen lagunduko diguten ekintzekin: nor dator zure herriko parkeak ikustera? Lasaitasun-une bat parkeentzat hain garrantzitsuak diren turisten –txorien– hots eta kantuak entzuteko.

Geure ortu eta baratzeetako produktuak landuko ditugu. Uda da, eta fruta eta barazki asko jan behar da energiaren bete-bete eginda ibiltzeko... Eguna oso luzea da eta jarduera zoragarri batera dago!

IZAN GAITEZEN SOLIDARIOAK

Zenbat pertsonak ematen dute beren denbora denok aukera berdina izan ditzagun? Ezagutuko ditugu elkarrekin? Betaurreko solidario magikoak jantziko ditugu, eta ezagutzen ez genituen beste gaitasun batzuekin bizitza ikustera eramango gaituzte. Proban jarriko dugu geure burua!

JOLAS EGIN NAHI DUGU!

Lagunartean jolas-guneak sortzeko garaia da. Ez dio axola ez lekuak ez orduak. Garrantzitsua ez da izango irabazi ala galtzea, edo kalean ala ikasgelan gauden.

Non gauden aztertuko dugu, eta txinpartak aterako dizkiogu!

Jolas egitea beharrezkoa da gure garapen emozional eta pertsonalerako. KUTXA KULTUR-ekin jolas egiten ikasiko dugu eta ikasiz jolas egingo dugu.